

AURKEZPENA

Gu bizi garen herrietan, geroz eta denda gehiagoren itxiera gertatzen ari da. Gure adiskide baten gurasoek denda itxi behar zutenean Amazon-en webgunean eskaera bat egitear geunden. Horrelako webgune batek ekar ditzazkeen abantailak milaka dira . Hori dela eta Urretxu-Zumarragako dendetako produktuak biltzen dituen webgune bat sortuko dugu eta bertan herritarrek etxetik dendetako produktuak begiratu eta erosi al izango dituzte.

Gure negozio ideia nobedade bat da, gaur egungo arazo batzuei aurre egin diezaiokeena. XXI. mendean gazte, nerabe, zein heldu ohituta gaude tarteka onlinea produktuak erostera. Plataforma hauek, non produktuak eska daitezkeen eta eskaera etxera ekartzen dizuten, oso erosoak eta ulerterrazak dira. Beraz istear dauden herriko dendei, zein bestelakoei aukera paregabe bat eman nahi diegu beraien negozioak aurrera pausu bat emateko.

Proiektuaren sortzaileak Xabat Laiglesia, Oinatz Urbegain eta Mikel Aiastui gara, eta Urretxu-Zumarraga Ikastolako Bigarren Batxilergoko ikasleak gara. Aurrera atera nahi dugun proiektu honekin herriko dendei salmenta era berri batean hareagotzeko aukerak eskeini nahi dizkiegu. Gure proiektuaren izena “Kimetz” izango da, eta izango dugun logoa berriz:



Gure helburuari dagokionez, Urretxu- Zumarraga mailan, salmenta urriengatik ixten dituzten dendek kopurua murriztea da. Guk eskainiko dizkiegun abantailak, webgune bat dira non beraien produktuak era seguru batean sal ditzaketen. Negozio sistema honek ondo eta era eraginkor batean funtzionatuko balu, banaketaz ere gu arduratuko ginatke.